I - rungo euskarazko

Irunero 382

Urriak 1, 2020

2 Irun Atzo Irun Gaur
3 Berri Laburrak
4 Argitu tailerrak
5 Irungo Euskaraldia
6 Ribera bekak
7 Irungo Harrera Sarea
8 Kirolak: Real Unión
9 Kirolak: Mariño
11 Haurren lanak / Denbora-pasak
12 Gazteen lanak
13 Beti gazte: Gurasoekin / Gazteekin
14 iGazte
15 Agenda

Mariñoren erronka berriak

caser residencial

INFORMA ZAITEZ!

Adineko pertsonentzako egoitzak

EGONALDI IRAUNKORRAK
ALDI BATERAKO EGONALDIAK
- FAMILIAREN ATSEDENERAKO
- ERREABILITAZIO, OPERAZIO ONDOKOAK
- GAIXONDOKOAK

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Pirineo Atlantikoko Departamenduarekin hitzartuak

Caser Anaka - Anaka kalea 8- IRUN - 943 66 77 80. Caser Betharram - Zubieta kalea 161 - HONDARRIBIA 943 64 71 69

ZER GERTATU ZEN IRUNEN ORAIN DELA 100 URTE?

1920ko aldizkaririk aurkitu ezean, 1918. urtean argitaratutako aldizkariak aproposa izan daitezke duela mende bat Irunen albiste ziren gertaerak ezagutzeko. 1918ko urriaren 6ean argitaratutako "El Bidasoa" aldizkariari gripe epidemiaren inguruko informazio gaurkotuarekin hasiera ematen zaio. Artikuluan epidemia geldiarazteko jarraibideak ematen dira. Hurrengo idatzian udalak esne saltzaileen prezioetan esku-hartu behar izan duela azaltzen da, esnearen salmentarako gehiegizko prezioak finkatu eta baserritarrek erosleez abusatu ez dezaten. "Neronek" kolaboratzaileak Heinenen olerki bat euskarara itzuli du zenbaki honetarako. Isidro Navarrok sinatutako idatziak azkenaldian mediku zein botikariek izandako lan karga handia agerian uzten du. "Cosas que se pasan en Irun" atalean Mañuelek gripe epidemiaren ondorioz Irunen jazotako gertakari arraro batzuk jasotzen ditu.

Leon Iruretagoyena Irungo alkateak Gripearen ondorioz Irunen hartuko diren segurtasun neurri bereziak jakinarazten ditu bando baten bitartez. Ostean, Tomás Larzabal eta Ignacio Gal Camino bezala hirian epidemiaren ondorioz hil diren beste hainbat biztanle gogoratzen dira, bi irundar hauen bizitza eta heriotzaren xehetasunak azalduz. "Señoras no es para tanto" idatzian "El Bidasoa" aldizkariaren aurreko zenbakian argitaratutako artikulu baten inguruko azalpenak ematen dira, irakurleen artean gertatutako gaizki-ulertua azaltzeko. Jarraian, Hondarribia zein Elizondoko zenbait albiste irakur daitezke.

Aldizkariaren hirugarren orrialdearen hasieran gripe gaixo baten logelan beharrezkoak diren gauzak eta hartu beharreko neurrien berri ematen da. Segidan, trenbideko langileen erakundeak antolatutako lehiaketa literario eta soziologoaren oinarriak argitaratzen dira, lehiaketan parte hartu ahal izateko urratsak azaltzeaz gainera. Azkenik, "Ecos de sociedad" eta albiste laburren atal mitikoarekin amaitzen da "El Bidasoa" aldizkariaren 196. zenbakia, publizitate orrialdearen aurretik.

Argazkiak:
G61945: Erizainak eta Gurutze Gorriko delegazioaren ordezkariak kontsultategiaren aurrean.
G10281: Segizioa hilerrira bidean 1949. urtean Pedro Castaing pilotari famatuaren heriotza dela eta.
G55597: Olimpo farmazeutikoa Hermanos Zaragüeta farmazian, 1910. urtearen inguruan Eliza eta Fermin Calbetón kaleen artean kokatuta egon zena.

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Ainara Berges
Joseba Arozena

erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Publizitatea:
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Inprenta:
ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

2019-2020 ikasturteko euskara ikastaroengatik diru-laguntzak eskatzeko epea zabalik dago

Irungo Udalak 2019-2020 ikasturtean euskara ikasten edo hobetzen aritu zirenentzako beken deialdia onartu eta abian jarri du. HABEk homologatutako euskaltegiek eta zentroek emandako euskalduntzeko ikastaroak lagundu ahal izango dira beken bitartez. Deialdia 79.140 eurokoa da eta eskaera urriaren 8a baino lehen egin beharko da.

Monica Martinez Euskarako ordezkariak azaldu duenez, euskara ikasten ari direnei laguntzeko Euskara arlotik aurrera eramaten diren ekimenen barruan sartzen dira laguntza hauek. Euskara ordezkariaren hitzetan, "laguntza horren helburu nagusia euskara bere egunerokoan gero eta irundar gehiagok erabiltzea da".

2019ko urriaren 1etik 2020ko irailaren 30a bitartean antolatutako ikastaroak diruz lagunduko dira. Horretarako, ikastaro hauetakoren batean parte hartutakoa izan behar da : Irungo euskaltegiren batean edo HABEk homologaturiko beste edozein ikastegitan, baldin eta ikastaroa Irungo euskaltegiek eskaintzen ez badute, ikaslea Irungo euskaltegiek onartu ez badute edo ikasleak ziurtatzen badu, ikasketak edo lana direla kausa, ezin duela Irungo euskaltegietako eskaintza baliatu. HABEk homologatutako Barnetegiei dagokienez, matrikula gastuak baino ez dira diruz lagunduko; baztertuta daude, beraz, bidaia, ostatu eta mantenu gastuak. Bestalde, Euskaltegietako talde bereziak, unibertsitateek udan euskaraz antolatzen dituzten ikastaroak eta euskarazko aisi edo kirol ikastaroak ere diruz lagunduko dira.

Diru-laguntza hauen eskatzaileek 16 urte beteta eduki beharko dituzte diru-laguntza eskatzen den ikastaroa hasten den urtean eta Irunen erroldatuta egon beharko dute 2019ko irailaren 1a baino lehen. Euskara ordezkariak azpimarratu duenez, "Udaleko Euskara Arloak Lannahi bezalako programak jarri ditu martxan langabeek euskara doan ikasteko, eta hau bezain garrantzitsua da baliabide nahikoak jartzea euskara ikasteko ahalegin ekonomikoa egiten duten pertsonei begira".

Horregatik, eta azken urteetan egin den bezala, Udalak euskara ikasten edo hobetzen aritu direnen matrikula-gastuak % 100ean diruz laguntzea aurreikusi du, betiere ikasketa prozesuaren aprobetxamendu akademikoaren arabera.

Bekak eskatzeko epea eta modua

Bekak eskatzeko epea zabalik dago urriaren 8ra arte. Interesatuek eskaera Irun Txartelarekin (edo beste ziurtagiri digital batekin) egin dezakete, www.irun.org/sac webguneko "Euskara ikasteko edo hobetzeko bekak" atalean. Atal horretan, nahikoa da adieraztea eskatzaileak zein euskaltegitan jardun duen eta bekaren zenbatekoa zein kontu korrontetan jaso nahi duen. Gainerako egiaztapen guztiak ofizioz egingo ditu Irungo Udalak.

Udazkena kultur proposamenez betetako agendarekin inauguratu da

Udazkenaren hasierarekin batera, datozen hilabeteetarako agenda kulturala aurkeztu du Juncal Eizaguirre Kultura arloko ordezkariak. Agendak aurreko urteetakoaren antzeko itxura mantenduko du, aire zabaleko jarduerak, Amaia antzokian edo hiriko beste kultur aretoa batzuetarako programatutakoekin tartekatuz. Antolatutako ekintza guztiek osasun-agintariek ezarritako segurtasun-neurriak bete beharko dituzte.

Udazkeneko agenda kulturala irailaren 25ean Etorbidearen zubian egitekoa zen Dantz Point ikuskizunarekin inauguratzekoa zen. Eguraldi txarraren ondorioz, ordea, DJ Piek eskainiko duen emanaldia urriaren 2ra atzeratu da eta aurrekisitako ordu berean, arratsaldeko 19:30etan, kontzertua eskainiko du. Publikoa eserita egongo da, eta ohi bezala, gonbidapenak 50 minutu lehenagotik jasoko dira.

Girabira denboraldiko laugarren eta azken saioa urriaren 4an izango da eguerdiko 12:00etan Mendibil parkean hasiko den Txikimusika formatuko ekitaldi batekin. Aurten publikoa aulkietan eserita egon beharko da, aurreko edizioetan bezala piknika egiteko aukerarik gabe.

Amaia Kultur Zentroan, nabarmentzekoa da antzokiaren udazkeneko egitarauan martxotik maiatzera bitartean egiteke geratu ziren ekitaldiak sartu zirela, adibidez, abenduaren 6an Rafael Alvarez"el Brujo"-ren emanaldia. Musika programazioa urriaren 4an hasiko da, 19:00etan, Xoel Lopezen kontzertuarekin. Udazkeneko beste emanaldi nagusietako bat "Geltokiak Izarretara" kontzertua izango da, urriaren 25ean, 19:00etan, Jabier Muguruzaren diskoaren aurkezpena. Musika bandak hilabete bakoitzeko ohiko kontzertuak eskainiko ditu, baina musikari kopuru txikia izango du.

Zine atalean, Bizinema Bang Bang ekimenaren bi saio geratzen dira, urriaren 17an eta abenduaren 26an. Udazkenean FICAB nabarmentzen da, azaroaren 16tik 21era bitartean. Saio berriak ere lantzen ari dira. "Zure aventuraren bila" zikloa hiru hitzordurekin itzuliko da urria eta azaroa bitartean, eta abenduan, berriz, Urpeko Zinema Zikloa egingo da. Lehen hitzordua urriaren 8an izango da, 19:30ean, Begoña Garcia Hugoren eskutik, "Mucha vuelta da la vida, las vueltas dan mucha vida" emanaldiarekin.

Gainera, Oiasso Museoko ohiko kontzertuak ere berreskuratuko dira, publiko murriztuarekin, udaberrian egin ez ziren bi hitzordurekin: Pez Mago azaroaren 13an eta Gorria, La Pulga eta Miren Amurizarekin, abenduaren 11n. Ainara LeGardonen eta Xabier Erkiziaren kontzertua urriaren 17an izango da. Oraingoz, CBAko kontzertu akustikoak ez dira berriz hasiko. Oiartzungo Organozaleak Elkartearen eskutik, Juncal parrokiako Azkue Memoriala izango da. Oraingoan, urriaren 4ean, 19:00etan, kontzertu berezia izango da, eta organoa eta bertsoa batuko dira, Thomas Ospital Iparraldeko organista ospetsuaren eta Uxue Alberdi eta Maialen Lujanbio bertsolarien parte-hartzearekin. Sarrera doan, lekua bete arte.

Bi erakusketa daude zabalik ohiko formatuan, baina publiko kopuru murriztuarekin: Maria Paz Jimenezen "diamante inquieto" erakusketako Menchu Gal aretoan (azaroaren 22ra arte) eta Adour-Bidasoa lehiaketaren erakusketa Amaia KZn (urriaren 11ra arte). Laboral Kutxaren aretoa laster berriro irekitzea ere espero da.

Azkenik, urrian agenda kulturala itzuliko da, formatu digitalean deskargatu edo paperean lortu ahal izango dena; hedapena mugatuagoa izango da, eta banaketa kontrolatua egiten dela ziurtatu ahal izango da.

ANTXETA IRRATIA 90.5 / 89.7 FM

Olaizola INMOBILIARIA AGENTZIA
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

“Energia Argitu” tailerrak Irunera iritsi dira

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ingurumen sailak antolatutako Energia Argitu programako 4 tailer egingo dira hirian. Tailerren helburu nagusia eraginkortasun energetikoa eta pobrezia energetikoa prebenitzea eta murriztea da. Lehen tailerra irailaren 22an egin zen eta urriko hilabetean zehar beste 3 tailer emango dira. Etxebizitzen birgaitze eraginkorra, energia berriztagarriak eta kontsumo elektrikoak izango dira hurrengo hitzorduetako hizketa-gaiak.

Energia Argitu programaren helburua energia elektrikoaren kontsumoa modu errazean murriztea da, etxeetako, dendetako eta lurraldeko enpresa txikietako tresnen bidez. José Ignacio Asensio Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen diputatuak adierazi zuenez, “Argituk beharrezko ezagutzak eta tresnak ematen dizkie herritarrei, Gipuzkoak eredu energetikoaren aldaketan aurrera egin dezan”. Diputatuak azaldu zuenez, energia-pobreziaren aurkako borrokan, energia-eraginkortasuna hobetu, elektrizitate kontsumoa murriztea eta mugikortasun birpentsatuz geroz, etorkizunean ekintza horien ondorioak nabariak izango dira.

Irungo alkateak José Antonio Santanok nabarmendu zuenez, Irunen aurrerapauso garrantzitsuak eman dira eremu horretan, izan ere, ibilgailu-flota modu iraunkorrean berritzeko apustua egin da IrunBus zerbitzuko linea bat %100ean elektrikoa izan dadin. Tailer hauen bitartez “gelditzeko etorri den” eredu berria herritarrengana hurbildu eta haiekin partekatu nahi da Irungo alkateak azaldu duenez, aukera horiek eguneroko joan-etorrietan erabiltzeak dituen abantaila guztiak zabaltzen laguntzeko.

“Argituk beharrezko ezagutzak eta tresnak ematen dizkie herritarrei, Gipuzkoak eredu energetikoaren aldaketan aurrera egin dezan”
José Ignacio Asensio, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen diputatuak

Argitu ekimenaren barneko bigarren tailerra urriaren 6ean egingo da. Tailerra Palmera Montero Guneko 2. aretoan egingo da eta arratsaldeko 18:30etan hasiko da. Kasu honetan, “Etxebizitzen birgaitze eraginkorrari” buruzko tailerra izango da, bide batez, herritarren bizi-kalitatea hobetzera zuzendutako tailerra izango delarik. Izan ere, zenbait elementu hobetzeak hala nola etxebizitzaren isolamendua, eraikinaren estankotasuna, aireztapen-kontrolak eta instalazio eraginkorrak, energia gutxiago kontsumitzeaz gain eta, ondorioz, dirua aurrezteaz gain, etxebizitzetan bizi diren familien osasuna ere hobetzen du (hezetasuna kontrolatzen da, kondentsazioak saihesten dira eta patologiak konpontzen dira). Tailerrean parte hartzeko izen-ematea urriaren 2a baino lehen egin beharko da.

Energia berriztagarriak izango dira Argitu zikloaren hirugarren tailerrean landuko den gaia. Tailerra urriaren 20ean egingo da Palmera Montero guneko 2. aretoan eta hitzaldia arratsaldeko 18:30etan hasiko da. Energia berriztagarrien inguruko tailerrean parte hartzeko izen-ematea egiteko azken eguna urriaren 16a izango da. Jardunaldiaren helburua Irungo bizilagunei energia berriztagarrien instalazioari buruzko ezagutza eta irizpideak ematea da, azken arau-aldaketek teknologia horiek familia bakarreko etxebizitzetan eta etxebizitza-blokeetan instalatzea erraztu baitute. Saio praktiko batean, espezialista batek gaur egun instalazio horiek nola egin daitezkeen argituko du, eta instalazio horietan sortutako energia nola erabil daitekeen aztertuko du, lurraldeko etxebizitzetan dagoeneko martxan dauden instalazioen kasu praktiko errealak aztertuz.

Azkenik, “Kontsumo elektrikoari buruzko datuak” aztertuko dira Argitu zikloaren barnean antolatutako azken tailerrean. Tailerra azaroaren 3an egingo da, arratsaldeko 18:30etan Palmera Montero guneko 2. Kontsumo elektrikoei buruzko datuak ezagutzeko eskubidea praktikan jar dezaten hiritarrei ezagutza eta irizpideak ematea izango da. Horrela, informazio horretatik abiatuta, kontsumo elektrikoa murrizteko behar diren erabakiak hartzeko baliabideak eskura izango dituztelakoan. Azken tailer honetan parte hartzeko izen-ematea egiteko azken eguna urriaren 31 izango da.

Izen-ematea eta neurriak

Tailerretan parte hartu nahi dutenek, tailerraren eguna iritsi aurretik izena ematea beharrezkoa izango da aldez aurretik zenbat parte-hartzaile izango diren eta saioak behar bezala antolatu ahal izateko. Izen-ematea egiteko argitu@gipuzkoa.eus helbide-elektronikora mezu bat idatzi edo 943 11 29 48 telefono zenbakira deitzea beharrezkoa izango da. Hortaz gain, www.argitu.eus webgunean informazio osagarria topatuko dute interesdunek.

Argitu ekimenaren barnean antolatutako ekintzetan parte hartzeko nahitaezkoa izango da indarrean dauden higiene eta osasun baldintzak betetzea. Hortaz, gehieneko edukiera 35 pertsonakoa izango da, parte-hartzaileen arteko gutxieneko distantzia 2 metrokoa izan beharko da eta uneoro maskara erabiltzea derrigorrezkoa izango da.

Mugikortasun iraunkorra abiapuntu gisa

Mugikortasun iraunkorrari buruzko Energia Argituko lehen tailerra irailaren 22an egin zen. Mugikortasun iraunkorreko beharren ezagutza eta ibilgailu elektrikoetarako jauzia landu ziren lehen tailer hartan. Tailerrean pixkanaka gizartean finkatzen ari diren mugikortasun iraunkorreko eredu berrien inguruan hitz egin zitzaien hiritarrei. Horretarako, gaur egun merkatuan dauden ibilgailu elektrikoen ezaugarriak, kontsumoak, prezioak, kargatzeko eskakizunak eta beste alderdi batzuk aztertu ziren. Gainera, mugikortasun iraunkorrerako eta/edo alternatiborako beste modu batzuk ere (ibilgailu hibridoak, bizikletak eta patin elektrikoak, etab.) aipatu ziren. Halaber, eguneroko mugikortasun-beharren, motorrik gabe mugitzeko aukeren eta ibilgailu elektrikoen eredu partekatuen inguruko gogoeta egin zen.

Programa hau Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Sailak 2017az geroztik garatu duen ekintza plana da. Dagoeneko 1.100 gipuzkoar baino gehiagotara iritsi da, lurraldeko udalerrietan egindako 105 aurrez aurreko tailerren bidez.

Euskaraldiaren bigarren edizioan Belarriprest edo Ahobizi gisa parte hartzeko izen-emate epea zabalik dago

Irunen Euskaraldiaren bigarren edizioa antolatzeko lehen urratsak eman dira. Irailaren 20ean Irungo Palmera Montero gunean Herri Batzarra egin ostean, ariketa sozialaren antolaketarako Talde Eragile sortu eta lehen bilera egin du. Hortaz gain, Ariguneen izen-emate epea itxi ostean, ariketan Belarriprest edo Ahobizi gisa izena emateko epea ireki da.

Lide Rekondo Irungo Euskaraldiaren dinamizatzaileak azaldu duenez, lehenengo urratsak entitateekin eman ziren, baina, Euskaraldiaren Batzordearen antolaketa Irunen ariketaren prestaketari ekiteko modua izan da, horrela, hiritarren nahien arabera ariketa sortzeko aukera eskainiz. Dinamizatzaileak azaldu duenez, batzordean jende dezentek parte hartu zuen, Irunen Euskaraldia antolatzeko asmo irmoa erakutsiz.

Hortaz gain, 8 pertsonek talde eragilean parte hartzeko interesa erakutsi zuten. “Gauden egoera gaudela oso zenbaki egokia iruditzen zait lanean hasi ahal izateko” Lide Renkondo Irungo Euskaraldiko dinamizatzaileak azaldu duenez. Talde Eragilearen zereginak honakoak izango dira: Ekimena Irunera egokitzea, hirirako plangintza propioa landu eta gauzatzea, parte hartzaileentzako motibazio eta formazio saioak aurreikusi eta antolatu, komunikazio orokorreko euskarriak herriaren beharretara egokitu edota berriak sortu, herriko izen ematea antolatu, etab.

“Online izen-emateak egitea lehenetsiko dela erabaki da”
Lide Rekondo Irungo Euskaraldiaren dinamizatzaileak

Covid-19ak eragindako osasun krisialdia dela eta hartutako neurriak errespetatzeko talde eragilean aurrez aurre soilik 10 pertsona elkartu ahalko dira. Hortaz gain, taldera batu nahi duen edonori ariketa sozialaren antolaketan parte hartzeko aukera emateko bileretan aurrez aurre parte hartzeko aukeraz gainera, online parte hartzeko tresnak erabilgarri izango ditu taldeak. Horrela, talde eragilea irailaren 24ean lehen bilera egin zuen hurrengo hilabeteetan zehar Irunen egingo den ariketari forma emango dioten lehen erabakiak hartzeko. Talde eragilearen lehen bilerarekin batera, irailaren 24ean norbanakoek Euskaraldiaren bigarren edizioan parte hartzeko izen-emate epea ireki zen. Izen-emate prozedurari dagokionez, “online izen-emateak egitea lehenetsiko dela erabaki da”, azaldu du Lide Rekondo Irungo Euskaraldiaren dinamizatzaileak. Horrela, ariketara norbanako gisa batu ahal izateko epea azaroaren 19ra arte luzatuko da eta izen-ematea www.euskaraldia.eus webgunearen bitartez egin beharko da.

Ariketa luzeagoa

Aurreko edizioarekin alderatuta, 2020ko Euskaraldiaren bigarren edizioak bi berritasun nagusi izango ditu. Batetik, Euskaraldiaren bigarren edizioko ariketak iraupen luzeagoa izango du. Hau da, lehen edizioko ariketak 10 eguneko iraupena izan bazuen, aurten Euskaraldiak 15 eguneko iraupena izango du. Izan ere, ariketa azaroaren 20ean hasi eta abenduaren 4ean amaituko da. Horrela, asteburu bakarra izan ordez, ariketak bi asteburu harrapatuko ditu tartean.

Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan

Bestetik, aurreko ediziorako sortutako Belarriprest eta Ahobizi rolez gainera, Ariguneak sortu dira entitateak talde izaera izango duen bigarren ariketa honen partaide egiteko. Ariguneek, alegia euskaraz aritzeko guneek, euskaraz hitz egiteko aukera bermatzen dute uneoro, izan entitate barruan edo izan entitateak herritarrekin duen harremanean. Talde hauetako kideek Ahobizi eta Belarriprest modura jardungo dute Euskaraldiak iraungo duen 15 egunetan, baina ariketa modu kolektiboan gauzatuko dute ariguneetan. Hortaz, bi Arigune mota bereiziko dira: Barne-ariguneak eta Kanpo-ariguneak. Barne-ariguneak entitate baten baitan ohiko dinamika duten eta kide guztiek gutxienez euskara ulertzen duten taldeak dira. Kanpo-ariguneak, berriz, entitatean herritarrekiko harreman-espazioetan dauden pertsonek osatzen dute, uneoro Belarriprest edo Ahobizi bat egongo dela bermatuz, hau da, herritarrek uneoro euskaraz artatuak izateko bermea izango dute.

Ariketan Arigune gisa izena emateko epea irailaren 27an amaitu zen. Irunen kasuan, ordura arte 58 entitatek Arigune bezala ariketara batu ziren. Apuntatutako Ariguneen artean mota askotako izaera duten entitateak bereizten dira, hala nola, ikastetxeak, kirol eta kultura elkarteak, enpresak, hedabideak, etab. Izen-emate epe ofiziala itxita egon arren, Irungo Euskaralditik azken deia egin nahi izan diete Irungo entitateei. Oraingoan, aldiz, izena eman nahi dutenek, haiekin zuzenean harremanetan jarri beharko dira irun@euskaraldia.eus posta-elektronikoaren bitartez.

Hurrengo urratsak

Euskaraldiaren bigarren edizioan izena ematen dutenek ariketaren inguruko informazioa jasoko dute datozen aste eta hilabeteetan zehar. Euskaraldiaren antolakuntzak jakinarazi duenez. Euskaraldian parte hartzeko materiala, txapak eta bestelako materiala, azaroan banatuko da hirian horretarako jarriko diren banaketa-puntuetan. Hortaz gain, ariketaren eragina aztertzeko egingo den ikerketan martxan da eta Euskaraldiko parte-hartzaileen laguntza behar beharrezkoa izango da ekimenaren emaitza ezagutzeko, beraz, ikerketako galdetegia erantzutea eskatzen da. Gainera, hirian antolatuko diren prestaketa saioetan parte hartzea gomendatzen da.

Aurten ekimena ikusgarriagoa egiteko kaleak Euskaraldiarekin janzteko helburua dago. Horretarako, etxeetako balkoi eta leihoak “Gehiago, Gehiagorekin, Gehiagotan” lelodun banderatxoekin jantziko dira. Banderatxoak herri batzordearen bidez, Euskaraldiko online dendan edo/eta Eroski saltokietan eskuratu daitezke.

Kultur ekitaldiak kalera itzuli ditu Bitamine Faktoriak Ribera jaialdiaren bitartez

Ribera Irungo Udalak lurraldea, memoria eta artea sustatzeko helburuarekin antolatutako programa da, Bitamine Faktoria kultura elkartearen kudeaketari esker gauzatzen dena. Arte garaikidea ardatz hartuta, Riberaren ibilbidea orain dela bost urte hasi zen eta, osasun krisialdia tarteko, 2020. urtean jaialdiaren 5. edizioa antolatzea posible izan da.

Hastapenetatik Bitamine Faktoria kultur elkartea arduratu da Ribera programaren kudeaketaz. Aurtengo edizioan, ordea, jaialdiaren antolaketa lana nekezagoa izan da Bitamine Faktoriako komunikazio arduraduna den Carlos Sánchezek azaldu duenez. Izan ere, ekintza, jarduera eta artelan guztiak momentuko egoera eta osasun neurrietara egokitu behar izan direlako. Zentzu horretan, zenbait ekintza talde murritzagoekin antolatu behar izan dira. Irungo Udaleko Kultura arlotik azpimarratu denez, jaialdia egokitu eta ekintza guztiak agintariek ezarritako segurtasun neurri guztiak betez egin ziren. Dena dela, Carlos Sánchezek aipatu duenez, "balantzea oso pozgarria da, Riberak berriro espazio publikora ateratzea ahalbidetu digulako eta jendearekin hartu-eman bat izateko aukera izan dugulako".

Bosgarren edizioa izanik, jendearentzat Ribera programa geroz eta ezagunagoa da. 2020. urtean zehar, gainera, kulturak gizarteari egindako ekarpena bereziki aipagarria izan da, gizartean oro har konfinamenduko hilabeteak arintzeko tresna ezinbestekoa izan baita. Bitamineko Carlos Sánchezek aipatu bezala, ez da ahaztu behar kultura egiten duten artistak profesionalak direla eta eskertzekoa dela horrelako jaialdien bitartez Irunen kulturgileen aldeko apustua egitea. "Kulturak guk behar gaitu bizirauteko eta guk, pertsona bezala, kultura behar dugu bizirauteko", azaldu du Bitamine Faktoriako komunikazio arduradunak. Irungo Udaletik Bitaminek gauzatutako kudeaketa lana eskertu da, kultura eta ekonomia lokalaren sarea indartzen baita, krisialdiak gehien kolpatutako sektoreetako bat laguntzeaz gainera.

Mugaz gaindiko izaera

Bitamine Faktoria sormen lantegiak zein Ribera programak mugaren bi aldeetan zubiak eraikitzen ahalegintzeko helburua partekatzen dute. Aurtengo Ribera programan, adibidez, Oier Gil eta Iker Eizaguirreren ekintzaren bitartez era esplizituan azaleratu zen programaren mugaz gaindiko izaera. Kasu honetan, berritu berri den Etorbidearen Zubia eta Santiago zubia soka baten gainean orekan gurutzatu ziren. Carlos Sánchezek azaldu duenez, "tartean ikusezina den muga bat badago eta, gure asmoa kulturaren bitartez zubiak eraikitzea da". Bitamineko komunikazio arduradunak adierazi duenez, bi aldeetako artista eta sortzaileak gonbidatzen dira guztion artean lurraldeari bestelako begirada bat eskaintzeko, memoria eta historiaren hausnarketa bat eginez. Hortaz gain, antolatzailearen iritziz publikoaren eta jendartearen parte-hartzea funtsezkoa da. "Publikoa gure lan esparru nagusienetako bat da eta etengabe horren garrantzia ikusten dugu, horretarako, jendearekin hartu-eman zuzena edukitzea artista edo, kasu honetan, kudeatzaile modura", gaineratu du Carlos Sánchezek.

Etorkizun berriak hizpide

Ribera jaialdia antolatzeko orduan, Bitamine Faktoriatik gai nagusi bat planteatzen zaie, haien sorkuntzak lelo horretara egokitu ditzaten. Carlos Sánchezek azaldu duenez, "aurten etorkizun berriak irudikatzeko ahalegina eskatu diegu". Horrela, momentuko egoera berezia aintzat hartuz, etorkizuneko memoriaren gaia planteatu nahi izan dute antolatzaileek. Era honetan, lurraldean etorkizunean nola biziko garen adierazi nahi izan da eta artisten lankidetza eta publikoaren parte hartzeari esker posible izan da.

Espazioa eta publikoa protagonistak

Irungo Udaleko kultura arlotik nabarmendu denez, arte garaikidearen birtartez Irungo kaleak konkistatzeko ideia azpimarratzen du Riberak, espazio publikoak ezagutarazten diren bitartean. Eguraldiak Ribera jaialdiaren antolaketa lagundu zuen, euri zaparradaren bat tartekatu arren, azkenean programan aurreikusitako ekintza guztiak aurrera atera baitziren. Goiza Ainhoa Izaguirrek Christian García del Campo fagot-jolearen erritmora gidatutako meditazio saio batekin hasi zen. Jaime de los Ríos ispiluekin sortutako arte instalakuntza ikusteko bisitak antolatu ziren. "La maquina de hacer pingüinos" antzerki konpainiaren eskutik performance bat antolatu zuen artista lapurtar taldeak. Gainera, beste urte batez "Oroimenaren Ormak" ekintza errepikatu zen, lehenbiziko aldiz ekintzan bi artista elkarlanean aritu zirelarik.

Euria atertu ostean, Santiagotarrak klubaren eremuan Idoia Zabaleta eta Bertha Bermúdez koreografoek Christian Garía del Campo musikariarekin elkarlanean prestatutako dantzaldia izan zen. Hirukote horrek lurraldeari guztiz txertatutako zerbait sortu zuen. Beltxargak gerturatu ziren, hegaztiak inguruan ibili ziren eta uraren gainean dantza egin zutela zirudien. Honela deskribatu zuen Idoia Zabaletak emanaldia: "Bi emakume, bi dama dantzari, fagota eta haren haizea lagun, aro bitxi honen hatsa elkarrekin arnastuz eta dantzan: lanbroa desegiteko eta txoriak agurtzeko xedez, nun eta jadanik itsasoratzen ari den ibai baten ertzean. Hau guztia, etorkizuneko zantzu ona liteke".

Antolatzaileek azaldu dutenez, publikoaren erantzunari erreparatuz gero, edizio arrakastatsua izan dela esan daiteke. Carlo Sánchezek onartu duenez, "publiko aldetik izan genezakeen erantzunaren beldur ginen, momentuko egoera eta neurri bereziak direla eta". Orain, burutu gabe gelditu diren proiektuak berreskuratu eta Ribera jaialdiaren hurrengo edizioetan gauzatu ahal izateko lanari ekingo diote dira Bitamine Faktorian.

Irungo Harrera Sareak tinko eusten dio migratzaileei harrera duina eskaintzeko helburuari

“Normaltasun berrian” Irungo Harrera Sareko kideek konfinamenduaren ondorioz etendako jarduera berreskuratzea erabaki zuten. Gauzak horrela, 2020ko udan zehar 1.000 migratzaile artatu ditu San Juan plazan “bulegoa” kokatuta duen hiritar sare honek. Orain, migratzaileak laguntzen dituzten bitartean, hirugarren urtez udazkena eta negua kale gorrian igarotzeko prestatzen ari dira.

Covid-19ak eragindako osasun krisialdiaren ondorioz ezarritako konfinamenduak estatu osoko jarduera geldiarazi ostean, Irungo Harrera Sareak udan berreskuratu zituen harrera lanak. Bien bitartean, gauza gutxi aldatu dira. Udako hilabeteetan zehar, guztira, 1.000 pertsona artatu dira zerbitzuan. Sareko boluntarioek onartu dutenez, udan migratzaile gehiago iristea espero zen, konfinamendua dela eta bidean arrapaturik gelditu zirenak pilatuko zirelakoan.

Migratzaileen profilari dagokionez, azken hilabeteetan zehar gertatutako aldaketa nagusia konfinamendua amaitu ostean, Irunera iritsitako emakumeen kopuruaren gorakada nabaria izan zen. Emakumeen kopurua konfinamendua hasi aurretik ez zen %10era iristen eta ondoren horietako asko haur txikiekin batera iritsi ziren hirira, joeran aldaketa esanguratsu hau azaltzen duen ageriko arrazoirik gabe. Aurrekaririk gabeko egoera hori lehen hilabetean zehar errepikatu zen, egun ohiko kopuruetara itzuli den bitartean.

Salbuespenak salbuespen, profil ugariena bakarrik zetozen gizon gazteena izan da eta talde txikietan mugitzen dira. Irungo Harrera Sareak jakinarazi duenez jatorri desberdinetako pertsonei egin zaie harrera udan; gehienak, Ginea Conakry, Mali eta Boli Kostakoak, eta gutxi batzuk, Kamerun, Senegal eta Nigerrekoak, besteak beste. Gehienak Kanarietatik etorriak izan dira, Afrikako migrazio-bideak aldatuz doazela erakutsiz, Espainiak eta Marokok zirkulazio askatasuna oztopatzeko egiten duten presio militarraren arabera.

Paris helburu

Irungo Harrera Sarean azkenaldian artatutako migratzaileek jomuga bera errepikatzen dute: Paris. Sareko kideak ordea, trantsituan dauden pertsonei ideia burutik kentzen ahalegintzen dira, Frantziako hiriburua kolapsatuta baitago. Informazio gaurkotu eta fidagarriagoa eskaini arren, ez da erraza artatutako pertsonen asmoak aldatzea. Oso gutxi dira, ordea, Irunen geratzeko erabakia hartzen dutenak. Sareko kidea den Ion Arangurenek azaldu duenez, “sarea martxan jarri zenetik hiritik igaro diren 13.000 pertsonetatik, 30 soilik erabaki dute Irunen gelditzea”. Izan ere, hegoaldetik sartu eta Irunera iristeko estatu osoa zeharkatu ostean, ulertzeko da haien helmuga Europako beste herrialde batzuk izatea. Hortaz, muga zeharkatzeko modua topatzea da haien kezka nagusia.

Sarearen zabalpena

Hiriko harrera zerbitzua martxan jarri zenetik, Irungo Harrera Sarearen jarduera ezagunago bihurtu da. Esaterako, migratzaile asko hirira iritsi aurretik sarearen berri dute edo lurrean oinatz berdeekin markatutako bidea aterpetxera zuzentzen diela dakite. “Estatu osoan ezaguna egiteaz gainera, Ginea Conakryn ere ezagutzen gaituztela esan digute”, adierazi du sareko kidea den Josune Mendigutxiak. Hortaz gain, Irungo sareak estatu beste zenbait Gobernuz Kanpoko Erakundeekin harremanetan dago, gehienbat hegoaldean kokatutakoak, haien jarduera zabaltzen eta informazioa partekatzea ahalbidetzen diena. Beraz, hasieran migratzaileei helarazten zieten beldurra eta mesfidantza pixkanaka desagertu dira.

Egoera aldakorra

Irungo Harrera Sareak udako hilabeteetan Irungo harrera dispositibora sartzeko irregulartasunak antzeman dituela salatu du. Sareak azaldutakoaren arabera, ez dago migratzaileen harrerarako kriterio koherenterik eta dispositiboa erdi hutsik egonik ere, migratzaile askori ez zaie aterpetxean sartzen utzi. Printzipioz 100 pertsonentzako lekua dago, baina, osasun krisialdia kontrolatzeko neurriak direla eta, aterpetxearen edukiera erdira murriztu da. Sareak migratzaileak aterpetxera laguntzeko Gautxori zerbitzua martxan du.

Ion Arangurenek adierazi duenez harrera dispositiboan sartzeko baldintzak zehaztugabe daudela diru, estatuko dokumentuetan bilatu arren, baldintzen zerrenda zehatza topatzea ezinezkoa baita . Bi dira aterpetxean migratzaileak ez onartzearen ageriko arrazoiak. Batetik, estatuan denbora “asko” eramatea eta, bestetik, erregistratu gabeko pertsonarik ez da onartzen, adibidez, estatura patera bitartez inolako kontrolik igaro gabe sartu direnak.

Bestetik, Frantziako poliziak pertsonen oinarrizko eskubideak errespetatu gabe jarraitzen du, ez baita pertsonen zirkulazio askerako eskubidea errespetatzen eta kontrol arrazistak burutzen baititu. Gainera, azkenaldian “migratzaile dublinatuen” kopuruek gora egin dute, Europan atzera eta aurrera dabiltza eta. Bereziki deigarria iruditu zaie, gizonez gainera, azken asteetan Irunen emakume “dublinatuak” ikusten hasi direla.

Irungo Harrera Sareak erantzunik gabeko beharrei erantzuna ematen jarraitzeko ahalegin berezia egiten jarraitzen du. Adibidez, Covid-19a iritsi zenetik arropa banatzeko zerbitzua itxita egon da, baina, laster berriro martxan jartzeko asmoa dute. Dena dela, aurreko urtean artatutako pertsonak arropa ondatuagoarekin etortzen ziren, orain, berriz, estatuan egonaldi luzeagoa egindako pertsonak jasotzen dituztenez, baldintzetan aldaketa antzeman dute. Orain, osasun krisialdia dela eta, migratzaile guztiak, hirira garraio publikoz iristen direnez, maskararekin iristen dira, beraz, sareko kideak oso egoera txarrean dauden maskarak aldatzeko beharrean ikusten dira soilik.

Dena dela, migrazio bideak itxi eta berriak zabalpen joan diren heinean, Arangurenek salatu du orokorrean migratzaileen baldintzak okertu, bidaia garestitu eta lehen baino konplikatuago bihurtu direla. Adibidez, iraileko hilabetearen hasieran Moriako kanpalekuan Grezian gertatutako suteak Europako Migrazio Politikaren hutsuneak agerian utzi ditu.

Bien bitartean, Irunen Irungo Harrera Sareko kideek bere jarduerari eusteko, hirugarren urtez udazken eta negua kale gorrian igaroko dute San Juan plazan kokatutako bulegoan. Eragozpen eta euri zaparrada guztien gainetik, ordea, boluntarioek osatutako sareak migratzaileei harrera duin bat eskaintzeko helburuari eusten jarraitzeko asmoa du.

Aitor Zulaika Real Unioneko entrenatzailea:

“Hobetzea izango da gure helburu orokor eta bakarra”

Aitor Zulaika Real Unioneko entrenatzaile izan zen eta taldearekin batera federazio kopa bat irabazi zuen 2014/2015 denboraldian. Realean zenbait urte eman ostean, talde txuri-beltzera itzuli da entrenatzaile gisa. Entrenatzaileak denboraldi berriko erronkak errepasatu ditu.

Real Union klub ezaguna da zuretzat?
Bai, aurretik 2 urtez Real Unioneko entrenatzaile izan bainintzen eta Zubietan urte batzuk eman ostean, Irunen bigarren etapa bati hasiera emateko prest nago. Hortaz, klubaren barneko estruktura, hau da, teknikariak, langileak, jokalariak edo afizioaren zati bat behintzat ezagunak dira niretzat eta, hortaz, hiria ezagutzen dut, beraz, dena ez da hain berria niretzat.

Azken denboraldi kaxkarren ostean, klubera ilusioa itzultzeko asmoa duzu?
Bai, izan ere, ilusioa ez da saltzen, ilusioa sortu egin behar da. Ilusioa sortzeko bi bide daude: iturri ekonomiko oso garrantzitsua izatea, gure kasua ez dena, edo egunerokotasunean hobetu behar dugu, egun batetik bestera lortzen ez den zerbait.

Talderen barnean aldaketak egon dira. Nola ikusten duzu taldea?
Ekainaren hasieran iritsi nintzenean, 9 jokalari kontratuarekin zeuden eta guztiek jarraitzeko arrazoiak zituzten. Horietatik, 4-5 jarraitzea nahi genuen eta, azkenean, 2 edo 3 jarraitzea lortu dugu, gainontzekoek beste proiektu batzuk hastea erabaki dutelako. Laburbilduz, aurreko urtetik 11-12 jokalari daude eta, aldaketak egon diren arren, esan dezakegu jokalarien 2/3 aurreko urtekoak direla. Bigarren B mailako talde batean 7 jokalari aldatzea ohikoa da. Aldaketak lehenbailehen egokitu eta berriei taldearen helburu komunak helaraztea da lehentasuna.

Nola ikusten duzu Real Unionen harrobia taldearekin koordinazioan?
Egia esan, aurretik Real Unionen egon nintzenean harrobia ezagutzeko aukera izan nuen. Harrobiaren egituran aldaketa garrantzitsu bat gertatu da, idazkaritza-teknikoa berria da, entrenatzaile berriak eta harrobia eraikitze prozesu batean murgilduta dago. Gainera, Irungo klub ezberdinen artean sinatutako akordioa oso garrantzitsua da. Dena dela, oraindik aldatu beharreko zenbait gauza daude. Irun bezalako hiri batek futbol-zelai egokiak izan behar ditu, egitura egokiekin eta Udalaren eta Foru Aldundiaren aldetik beharrezko babesa jaso behar dute horretarako.

> **“Aldaketak lehenbailehen egokitu eta berriei taldearen helburu komunak helaraztea da lehentasuna”**

Zein helburu jartzen diozu taldeari denboraldi honetarako?
Txapelketaren formatua oso ezberdina da, bigarren B mailan 80 talde izatetik 102 talde gaude eta hiru fase ezberdin daude. Dena desberdina izateak ezjakintasun puntua handiagotzen du eta aukerak zalantzetan geldi tzea edo lanean buru-belarri hastea dira. Igoera eta jaitsiera mota desberdinak daude, gainera, azpitalde asko daude, ez da erraza aurtengo denboraldirako helburua markatzea, hala ere, talde gehienen helburua bigarren B maila “Pro” horretara igotzea izango da eta guk erronka polit horri helduko diogu. Hobetzea izango da gure helburu orokor eta bakarra, bihar gaur baino hobeak izatea lortzeko. Euskarazko esaerak batek dio atzeak erakusten du aurrea nola dantzatu, beraz, aurreko urteetako esperientziak etorkizunean gauzak nola egin behar ditugun erakutsiko digu.

Denboraldi-aurreko azken partidua eta denboraldiko lehena Alavesaren aurka jokatuko dituzue. Nolakoa izango da etsai beraren aurka jarraian bi partidu jokatzea?
Aldaketaren bat egon daiteke, kopa federazioan beranduago izena eman genuenez, urriaren 10ean Kopa Federazioan hastea gerta liteke, baina, oraindik ez dakigu noren aurka jokatzea egokituko zaigun.

2015ean zu hemen zeundela Real Unionek azken federazio kopa irabazi zuen. Lorpen hori errepikatzeko gogoekin itzuli zara?
Garaipen hura guztientzat oso aberasgarriak eta politak izan ziren momentuez inguraturik egon zen. Gainera, klubaren 100. urteurrena zenez, aitzinean lorturako kopa eta arrakastak gogora ekartzeko baliagarria izan zen. Hala ere, Kopa Federazioan parte hartzearen arrazoia jokalari guztiek partida minutuak izatea da, jokalariek oinarrizko esperientzia hartzeko, baina, lehia alde batera utzi gabe. Orduan lortutakoa errepikatzea oso zaila da, pasatu den urak ez baitu errota mugitzen, izan ere, lehenak ez du ezertarako balio, oraina da garrantzitsuena eta horretan gaude zentratuta.

Zein mezu bidaliko zenieke klubeko jarraitzaileei?
Klubaren izenean hitz egiteko ez naiz egokiena, baina, azpimarratzeko da klubak azken asteetan zehar lan asko egin duela publikoa zelaira itzuli ahal izateko. Irungo jendeak Stadium Galera etortzeko ohitura berreskuratzeko aukera izatea pozgarria litzateke, askotan mezuen ordez, klubaren ekintzak adierazgarriagoak izan daitezke. Bestetik, Aitor Zulaikaren izenean Irunen Covid-19a pairatu duten familia guztiez gainera, irundar guztiak momentu konplikatu gogoan izan nahi ditut, hiria elkarturik mantentzeko momentua baita eta nire animoak emateko aprobetxatu nahi dut. Klubaren izenak adierazten duenez, batu gaitezen eta aurrera jarraitzeko modua topa dezagun.

Mariñoko neskek Ohorezko Dibisio Erregionalean jokatuko dute aurtengo denboraldian

Mariñoko neskek Ohorezko Dibisio Erregionalean jokatuko dute 2020/2021 denboraldian. Osasun krisialdiaren ondorioz aurreko denboraldia igoera-fasea jokatzeko sailkatu zirenean eten zen eta Goierri Gorri futbol taldeak ohorezko dibisioari uko egin ostean, Mariñok kategoriaz igotzeko aukera topatu du. Maialen Elgorriaga entrenatzaileak eta Mireia Zumeta taldeko bigarren kapitainak hasiberri den denboraldirako taldearen erronkak zeintzuk diren errepasatu dituzte.

Berezia izango da denboraldi berria kategoria altuago batean hastea, ezta?
Maialen: Denboraldia amaitu zenean lurraldeko-kategorian jolasten jarraituko genuela uste genuen. Denboraldia hastear zegoenean, kategoriako onena izateagatik kategoriaz igotzen ginela esan zidaten. Jokalariei berri ona jakinarazi nienean pozik hartu zuten.

Mireia: Maila berdinean jokatuko genuela pentsatuz hasi ginen, lehen entrenamenduetako batean berri ona jaso genuen arte. Igoera oso pozgarria izan da taldearentzat.

Bukaeran emaitza onak lortu arren, aurreko denboraldi hasiera konplikatua izan zen?
Maialen: Denboraldia 13 jokalari, 2 atezainak barne, geneuzkala hasi genuen. 11 dira zelaian jokatzen duten jokalariak, beraz, oso larri genbiltzan. Beheko mailetan ezagutzen nituen jokalariei laguntza eskatu nien. Kadeteen laguntzari esker zenbait partiduetan taldea osatzeko aukera izan genuen eta haien lana eskertzekoa da.

Mireia: Tarteka beste taldea laguntzea edo asteburu berean bi partidu jokatu genituen, baina, beste aukerarik ez zegoenez, klubeko kideak laguntzeko modu bakarra zen.

Nola bizi izan zenuten zuek 2019/2020 denboraldiaren amaiera?
Maialen: Denboraldi amaiera tristea izan zen, taldea finala jokatzeko aukerekin ikusten nuelako. Joko-maila altua zen eta kategoriaz igotzeko aukerak ikusten nituen. Agindu bezala entrenamenduak gelditu behar izan genituen.

Mireia: Nire taldeko kide batzuk eta nik neuk goiko taldea lagundu genuen aurreko denboraldian zehar. Gure taldea eta txapelketa propioak izan arren, klub bezala, Mariñoko beste taldeak laguntzeko beharrean ikusi ginen. Entrenamenduak eten zirenean ez genuen uste azkenean kategoriaz igotzea lortuko genuenik.

“Taldeak gutxienez sailkapenaren erdiko postuetara iristeko aukerak dauzkala uste dut”
Maialen Elgorriaga, talde erregionalaren entrenatzailea

Zein erronka dauzkazue denboraldi berri honetarako?
Maialen: Aurten 20 jokalari dauzkagu eta taldera kadete batzuk igo dira, beraz, denboraldi on bat egiteko aukerak dauzkagu. Taldeak gutxienez sailkapenaren erdiko postuetara iristeko aukerak dauzkala uste dut eta, ahal bada, gorago sailkatzen ahaleginduko gara.

Mireia: Jokalari gisa nire helburua gauza berriak ikastea da, jokalari berriak taldera batzea lortzen dugun bitartean. Kategoria altuenera iritsi garenez, familia bezalakoa izango den taldea izan nahiko nuke.

Erraza da entrenatzaile gisa horrelako talde bat zuzentzea?
Maialen: Orain arte haurrak entrenatzen ibilia nintzen. Kadeteak kimu-kategorian zeudenean hartu nituen eta haiekin batera gora egiten joan naiz. Joan den urtean lurraldeko-kategorian entrenatzailerik ez zutela ikusita, erronka onartzea erabaki nuen. Oso ondo moldatu naiz taldearekin, jokalari oso jatorrak dira eta elkarrekin emaitza onak lortzea espero dut.

Mireia nola daramazu klubeko bigarren kapitaina izateko ardura?
Mireia: Haurren kategorian hasi nintzen eta bigarren urtetik aurrera kapitain rolean ibili izan naiz. Oso pozik nago, kargu bat izan arren, ingurukoak laguntzea beti gustuko izan dudalako.

“Gure helburuak jokalari berrien helburu bihurtu behar ditugu”
Mireia Zumeta, taldeko bigarren entrenatzailea

Erraza izan da taldea sartutako jokalari berriak zuen joko-mailara egokitzea?
Maialen: Aurten bi jokalari fitxatu ditugu, hau da, Ane Iza Hondarribiko taldetik itzuli dena eta Urnietatik Eneritz Ramirez fitxatu dugu. Berriek taldearentzat lagungarria izango den ekarpena egitea espero dut.

Mireia: Jokalari berriak etortzen direnean gurekin eroso sentiaraztea da, azken finean, gure helburuak jokalari berrien helburu bihurtu behar ditugu .

Kategoria igoerak Irunen emakumezkoen futbola ikustarazten lagunduko dizuela uste duzue?
Maialen: Bai, aurretik esan bezala, Irunen emakumezkoen futbola indartzen ari den kluba da Mariño. Hortaz, pixkanaka bidean topatzen ditugun erronkei aurre egiten jarraituko dugu, jendea konturatzeko, bizitzako beste edozein alorretan gertatzen den bezala, futbolean gizonak eta emakumeak berdin ibili gaitezkeela.

Mireia: Eskertzekoa da Irunen emakumeei futbolean aritzeko aukera eskaintzen digun klub bat izateaz, kasu honetan Mariño. Txikitatik futbola atsegin izan dut eta Irunen emakumeentzako futbol klubik ez balego, nun jokatuko nuke? Beraz, oso eskertuta nago Mariñok hainbeste urteetan zehar nesken futbola babestu eta bultzatu duelako. Klubean badira 10 urtez etenik gabe futbolaz gozatzeko aukera izan duten emakumeak eta aurrerantzean gauzak berdin mantentzea espero dut.

Hatsaren poesia 2020/Askoren artean/Hatsa Elkartea, 2020

Sinetsi nahi dut maitasuna dela munduaren bihotza

Ainara Maia Urroz

Liburu honetan poetak baino gehiago, olerkariak aurkituko ditu irakurleak, eta olerkigintzaren mamira iritsiko gara; ezkutuan dagoen poesia honek ez digu diruz betetzen, baina ez da deus egin gabe gelditzen. Aurtengo hogeita bigarren edizio honetan, Itziar Gomez olerkariak izan du hitzaurrea egiteko ohorea, eta berak dioen bezala, Oso Pertsona Inportanteok olerki-zipriztinez alaitu genuen HATSAREN eguna iragan uztailaren 19an, aurten udako fruitu gorriz heldu zaigu liburua, irakurle, alaitzeko urte bitxi hau, baina koronabirusak hartutako mundu hau ez dugu horregatik oroituko baizik eta beharbada gogoratuko dugu honela: neure olerkia argitaratu nuen urtea da 2020a!

Liburu honetan aurten joan zaigun Gabriel Korta olerkari errenteriarra omendu nahi izan dugu, Hatsaren poesia sortu zenetik urtero udaberriz parte hartu duena, eta hark esandako azken hitza da honakoa: sinetsi nahi dut maitasuna dela munduaren bihotza. izan ere, irakurle, nahi zaitugu, maite zaitugu, poesia ere zu zarelako; poesia ni naiz eta poesia zer den jakiteko hartu liburu hau eta zerorrek esan!
Olerkaria beste olerkariekin gutxienez urtean behin biltzen du liburu xume honek Senperen, aurten hogeita bigarren edizioa dugu eta liburuak argitaratu dituzten poeta ezagunak eta libururik argitaratu gabeko olerkari ez hain ezagunak elkartzen ditu, baita ikastola zenbaitzuetako gazteak (Ziburu, Lauaizeta, Antigua-Luberri), Bilboko IRALEko ikasleak eta Irungo AEK-ko B2 mailako euskara-ikasleak ere.

Aurten apirilean argitaratu zen liburua, iragan apirilaren 5ean, baina magiaz bezala, Koronabirusak gorde zuen biltegian, eta aurten ez-ohikotasunez uztailean aurkeztu dugu, apirilean beharrean. Urtean behin argitaratzen dira “bizi-hitz” eta “argi-hizki” hauek, eta aukera horri esker olerkaria esertzen da eta idazten. Hitz hauek ederrak dira, ezinezko dena saiatzen direlarik adierazten eta zinezko eta benetako bilakatzen bihotzaren indarrez.

Olerkariok maitemindurik gaude, izugarri maite dugulako, eta bakarrik eta inor gabe, olerkaria beti maitearen zain dago, olerkariak maite duelarik, benetan maite duelako, idazten duena ez baitira hitz hutsak, baizik eta isiltasunez betetakoak.

Udaren azkena iritsi zaigu liburu honekin, urtero bezala, eta inork ez daki nola gertatu den, baina olerkarion istorioak dira, beste aukerarik gabe egiten dugu aurrera eta ez da gutxi. Ba ote du oihartzunik euskal gizartean hogeita bi urteotan olerkariok hemen idatzi ditugunak?

Gure ametsak bete al dira? Gaurkoen ametsak beteko al dira bihar? Gure minak eta negarrak sendatu al dira? Gure beldurrek eta erronkek aurrera eginaraziko ote diote bizitzan blokeatu gabe?

Beharbada denok ez gara idazle eta ez gara euskal literaturan kabitzen, baina poesiaren kabi goxoa dugu urtero euskal olerkariok Senperen hutsik egin gabe eta olerki-terapia gisa olerkari-lagunaren benetako irria dugu ezpainetan, maskara atzean bada ere, bihotz-begiekin elkar besarkatuz eta minak goxatuz.

Olerkariok ez dugu inoiz hiltzea espero, bizituko baikara beti hemen. Bagare, bagara, bagera, bagire. Gure begiradak topatzen dira, mila zatitan hausten naiz. Gauza bat da liburuak argitaratzeko bizi den poeta; eta beste gauza bat da bizitzeko libururatzen den olerkaria. Hatsez hats, hatseden. atsegin handiz eta eskerronez, biziminez eta maiteminez beti zuri, irakurle, eta gozatu irakurketa anitzaz.

ESTUDIO FOTOGRAFICO
GO VER™
Fernando Vergara
argazkilaria
Letxumborro hiribidea 100,2°
20305 Irun
943 840 113 - 647 930 484
www.fotogover.com
www.fotogoverbodas.com
info@fotogover.com

Txingudi Ikastola LH4


EUSKARAREKIN
GOZATU !!

Norbaitek euskararen egunaz ezer ikasiko duzu euskara ere erportantzia daukala gure inguruan ikusi duzu eta Euskal Herrian gaudenez euskaraz asiko bagara pentsatzen baitut.
Txingudi ikastolako ikasle bat naiz eta aurten euskara egunean, poticar elkartu ginen ikasle guztiak elkartzeko, dantzatzeko eta elkarrekin momuak egiteko.
Aurretik, gelan elkartuak ondo ibili ginen eta kaleak asmatu genituen elkartu baten ezaugarri hauek, hala nola:

"Euskaraz jolastu nahi dut"
"Euskaraz maitatu nahi dut"

Primeran pasa genuen guztiok !!

Maitane Pikabea

Denbora-pasak

Udazkenean: 7 hitz

S	J	X	I	Y	C	I	R	P	W	Z	A	I	M
F	U	H	O	S	T	O	K	E	K	P	O	W	Z
M	C	T	W	C	H	G	T	R	O	J	W	C	M
Q	T	Z	O	X	Q	E	J	R	J	A	M	T	A
W	Y	X	V	N	G	N	I	E	L	M	W	M	A
S	I	X	A	X	D	E	X	T	J	T	F	R	N
A	T	T	N	M	R	O	D	X	S	G	K	A	A
S	B	K	J	S	A	G	X	I	G	A	A	T	B
T	A	O	C	F	G	R	U	K	E	Z	L	E	B
R	H	T	T	I	B	P	R	O	Z	T	A	R	I
M	K	S	Z	Y	V	O	L	A	L	A	B	K	C
L	R	X	T	B	D	O	K	M	E	I	A	I	Y
O	O	B	U	S	U	A	W	I	W	N	Z	A	L
I	E	G	F	F	W	Z	W	H	Z	A	A	U	Z

Sutondo, gaztain, txamarra, aterki, hosto, kalabaza, perretxiko

		9		6	8			1
		2			5			
			9				4	
1	5	6				4		
	2					6	9	5
4		3						8
	6	4		5				3
8			4	2				
	3		6		7		2	

IRUNABAR
IRUNGO BERTSOAREN BILGUNEA

(poli-tik-a)

Doinua: Delikatua baitut (Anje Duhalde)
Egilea: Andoni Zelaia Otaño

1
Batetikan keria
bestetik ismoa,
hitz potolo kutsua
ote den susmoa,
irudimenez jantzi
euskaldun kosmoa,
elkartzeko bakoitzan
mundu intimoa.

2
Amesten den artean
egin leike hegan,
probatzen ez duenak
nola jakin zer dan,
ametsaren erdia
gogoratzen dedan,
oraingoz ezingo det
ur hortatik edan.

3
Pentsamentu askea
ta ideiak argi,
aldaketaren alde
agertuaz garbi,
egia da oraindik
gabiltzala nagi,
bat gahi bat elkartuta
egiten dira bi.

4
Okerren dagoena
hobetze aldera,
berari laguntzea
guztion afera,
birusan ikasgaia
ez bada sobera,
gure harrotasuna
itsua ote da.

5
Gizarte askearen
Euskal Herri aske,
politika ohiturak
bilakatuz gazte,
jerarkiak baztertuz
berritasun eske,
ezkerretik jokatuz
indar eta ospe.

6
Beren menpe herriak
eta nor banako,
eskubia hobe da
boteretik flako,
gizarte justuaren
arrisku dalako,
arrazoi ez dugula
pobre garelako.

7
Historia luzean
zenbat ukazio,
politiko askoren
sasi negozio,
herriarentzat ez dut
gehiago desio,
borroka burutsua
bihurtu pasio.

8
Askatasuna ez da
zenbaki kontua,
Eskubidea ez da
batzuen patua,
Berdintasuna ez da
zerbait pribatua,
hau lortzea ezin da
izan delitua.

San Vicente de Paul DBH3

Durangoko azoka

San Vicente de Pauleko ikasleak Durangoko azokan egon dira.

2019ko abenduaren 5ean DBH 3ko ikasleak Durangora eguna pasatzera joan ziren. San Vicente de Paul ikastetxean abenduaren hasieran euskararen astea ospatzen da, beraz bertako ikasleek euskararen eguna ospatzeko Durangoko azokara joatea erabaki zuten.
Joan baino lehen euskarako ikasgaian bertan zer egongo zen aztertu zuten: zein idazle, abeslari, liburu, disko, gune...

Goizeko 9:00etan eskolatik irten eta 10:30etan DA-ra iritsi ziren. Lehenik eta behin, ikasleek tokia ezagutu zuten. Ondoren, Ahotsenean sortzaileen plazan Jon Urrutiaren Trakamatraka saioaz gozatu zuten. Hamaiketakoa jan ondoren, gune desberdinak ezagutu zituzten. Ikasleak taldetan banatu ziren, irakasleek prestatutako "ginkana" burutzeko. Taldeko irabazleek sari bat jaso zuten eta galtzaileek autobusean froga bat bete behar izan zuten.

13:00 aldera ikasleak bazkaltzera joan ziren. Bazkal ostean, denbora libreaz gozatu zuten: batzuk Durango Herria ezagutzera joan ziren, beste batzuk diskoak eta liburu desberdinak erosi zituzten. Adibidez, Izaro, Nogen, Kortatu, En Tol Sarmientoren, Zetak eta Berri Txarraken diskak eta Everest mendiaren, El Libro del Terrorismoren, Nur-en, Cómeme la Florren liburuak.

Arratsaldeko 16:30etan ikasleak poz pozik eskolara iritsi ziren.

Ikasle batzuen iritzi pertsonalak honakoak dira:
Joel Yubero "Hurrengo urtean bueltatzea espero dut"
Nora Eraso "Beste eskoletako ikasleak ezagutzeko aukera bikaina"
Nerea Bermejo "Abeslari berriak ezagutu ditut"
Lucía Cid "Trakamatraka saioa ikaragarri gustatu zait"
Maria Calderon "Nunca había oído hablar de DA, una experiencia increíble"
Heidi Rodriguez "Arlo desberdinetako liburu pila bat"

Gazteentzat pentsatutako hainbat programa eta ekimen abituko dira udal arlo ezberdinetatik

Irungo Udaleko arlo ezberdinetatik gazteentzat eta haien ingurunearentzat pentsatutako hainbat programa eta ekimen abiatuko dira. Gurasoekin eta Gazteekin izeneko ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago jada. Gizarte Ongizate arloak Adikzio Planaren barruko eskolako jarduerei eta Ingurune Irekiko Programari eutsiko die. Gainera, Martindozenea Gaztelekuan gazteentzako ekintzak antolatzen hasiko dira berriro, beti ere, momentuko segurtasun neurri guztiak errespetatuz.

Gizarte Ongizate arloko ordezkaria den Cristina Labordak Irungo Udalak prebentzio gaiak lantzeko ikasturte hasierarako prestatu duen egitasmoaren berri eman du.Cristina Labordak azaldu duenez, egoera normalean hezkuntza arloan eguneroko bizitzako arazoak konpontzeko laguntza behar izaten da askotan. Gizarte Ongizate arloko ordezkariak adierazi duenez, "pandemia egoeran eta egungo krisialdian, baliteke are zalantza gehiago izatea. Horregatik, ikasturte hasierarekin udalak beste urte batez prebentzio programak martxan jartzea erabaki du.

Programa horien artean Adikzio Planaren barruko eskolako jarduera guztiak daude, zeinek alkoholarekin eta beste droga batzuekin eta teknologia berrien erabilera desegokiarekin lotutako arriskuei aurre egitea duten helburu. Ildo beretik, Gizarte Arloak bereziki landu nahi duen beste ekimenetako bat kaleko hezitzaileek Ingurune Irekiko Programaren barruan egiten duten lana da. Betiere, formatuak egokituko dira, osasun agintariek ezarritako segurtasun neurriak betetzeko.

Gurasoekin eta Gazteekin

Udal arduradunek prebentziorako beste lan ildo bat zehaztu dute: Gurasoekin eta Gazteekin ikastaroak. Ikastaro horien garapenerako, momentuko egoera dela eta, osasun agintariek ezarritako neurriekin bat etorriz, ikastaro bakoitzeko parte-hartzaileen kopurua erdira murriztu da eta talde gehiago sortu dira. Saioak Palmera Montero eraikineko 4. eta 5. aretoan egingo dira.

Gurasoekin programan astean behin edo bi astero biltzen diren guraso taldeek parte hartzen dute, gaian adituak diren profesionalen gidaritzapean. Taldeak familien beharren eta sema-alaben adinen arabera bereizten dira. Guztira, hamabost egunean behin biltzen diren 10 talde daude eta, babes gehiago behar duten gurasoentzat, astean behin biltzen diren 4 talde.

Programaren helburua aitatasun eta amatasun positiboa sustatzea da, hau da, guraso eta seme-alaben arteko lotura afektiboak bultzatuz. Gurasoiei estimulazioa eta babesa eskaintzen zaie. Gurasoek heziketan mugak non jarri behar dituzten ikasten dute, indarkeriarik erabili gabe eta Haurtzaroko eskubideak errespetatuz.

Gazteekin ikastaroak, berriz, 12 eta 17 urte arteko gazteentzat zuzenduta dauden heziketarekin lotutako esku-hartze psikologikoko programak dira. Ikastaroak Nazioarteko Osasun Erakundeak sutatutako "Bizitzarako Gaitasunak" ekimenean oinarritzen dira, bizitzarako baliagarriak izango diren arlo desberdineko 10 trebetasun lantzeko. Hain zuzen ere, hauek dira bizitzan garapenerako beharrezkoak diren 10 gaitasunak: autoezagutza, enpatia, komunikazio asertiboa, pertsonen arteko harremanak, erabakiak hartzea, arazo eta gatazken kudeaketa, pentsamendu sortzailea, pentsamendu kritikoa, emozio eta sentimenduen kudeaketa eta tentsio eta estresaren kudeaketa. Bizitzarako Gaitasunen tailerrak 17:30etatik 18:45etara emango dira eta Laguntza taldea 18:45etatik 20:00etara bilduko da.

"Urtero bezala gazteentzat erakargarria, dinamikoa eta dibertigarria izango den programazioa eskaintzeko lanean ari gara"
Rebeca González, Gazteria ordezkaria

Bi programetako batean parte hartu nahi duten pertsonek Irungo Udalaren webgunean izen-ematea egin ahalko dute urriaren 15era arte. Bestela, 943505152 telefono zenbakira deitu eta izen-ematea egiteko aukera izango dute. Bi ikastaroak doakoak dira, plaza kopurua mugatua da eta izen-emate hurrenkeraren arabera banatuko dira.

Martindozenea martxan

Udako hilabeteak amaitu ostean, Gazteria arloak gazteentzat pentsatutako aisialdiko ekintzak berriro martxan jarri ditu. Aurreko urteekin alderatuta, ekintzen formatua momenturo Covid-19a dela eta hartutako segurtasun neurri guztiak betetzera bideratuta egongo da. Lehen ekintzak iraileko hilabetearen amaieran antolatu ziren eta lehen jardunaldietan egoera ezohiko honetan Gaztelekuko zerbitzuak jarraituko duen dinamika azaldu zen.

Rebeca González Gazteria ordezkariaren hitzetan, "urtero bezala gazteentzat erakargarria, dinamikoa eta dibertigarria izango den programazioa eskaintzeko lanean ari gara". Gazteartean Udal Gazteria zerbitzutik azpimarratu dutenez, programa honen bitartez Gaztelekuan nerabe eta hezitzaileen arteko harremanak berreskuratu nahi dira. Horretarako, biztanleria gaztearen artean momentuko egoera sanitarioak eragiten dituen beharrak partekatu, horien inguruan ausnartu, lagundu eta erantzuteko espazio bat sortzeko.

Edozein ekintzetan parte hartu ahal izateko, aurretiazko izen-ematea egitea beharrezkoa izango da. Zentzu horretan, ekintza momentuko egoerara egokitzeko neurriak hartuko dira eta ekintzak bertan behera gelditu, aldaketak egin edo egokitzapenak izan ahalko dituzte, osasun irizpideen arabera. Orain arte antolatutako ekintza guztiak espazio irekietan egingo dira, beti ere, eguraldiak horrela izatea ahalbidetzen duenean. Programatutako ekintzen artean, jaka bakeroen kustomizazio tailerra, Laser Tag ekintza edo Tie Dye motako kamisetak egiteko tailerrak aurkitzen dira, besteak beste.

"Irun Hiria" argazki lehiaketa

Irun Hiria argazki lehiaketaren XXXI. edizioa antolatu du Irungo Argazki Elkarteak. Lehiaketak bi gai nagusi izango ditu, batetik, gai librea, eta bestetik Irun gaia.

Egile bakoitzak gehienez gai bakoitzeko 3 argazki aurkez ditzake, lehiaketa hontan lehendik saritu gabekoak. Argazkien tamaina librea da, hala ere, argazki bakoitzak 40x50zm-ko paspartout edo kartulina gogor batean jarrita joan beharko du, gehienez 2mm-ko lodierakoa.

Halaber, egile bakoitzak aurkezten dituen obrak JPG formatuan eta proiektatzeko kalitatearekin (gutxi gorabehera 2000 pixel alborik handienean) bidali beharko ditu e-mail honetara: ciudadirun@afi-iae.com, egilearen datuak adierazita. Irudi guztiak parte-hartzaileak berak eginak izango dira eta ezingo da irudian beste egileen elementurik sartu.

Lanak aurkezteko epea 2020ko urriaren 13ra arte zabalik egongo da.

Sari-banaketa publikoa izango da, azaroaren 20an Irungo Amaia Kultur Zentroan, arratsaldeko 20:00tan egingo dena. Bertan, aurkeztutako obra guztietatik, hautatutako batzuk proiektatuko dira. Azaroaren 20tik abenduaren 13arte, aipatutako kultur zentroan erakusketa egingo da hautatu diren obrekin.

Bidasoaldeko Ikaskuntzako Bitartekaritza Zerbitzua

Ikaskuntzako Bitartekaritza Eusko Jaurlaritzako zerbitzu publikoa eta doakoa da. Bere helburua 16 urte eta gehiagoko pertsonen artean prestakuntza sustatzea da, haien egoera soziolaborala edozein izanda ere.

Bitartekaritza zerbitzuan edozein ikaskuntzari buruz informatzen dugu. Kontaktua: Ainhoa Martinez, ikasbidasoaldea@ikaslangipuzkoa.eus helbide elektronikora idatziz, edo 943 89 92 14 (luzapena 98692) telefono zenbakira deituta.

Zerbitzua Plaiaundi Instituko eraikin nagusiaren 1. solairuan kokatuta dago eta astelehenetik ostiralera 8:30etatik 15:30etara bitarteko ordutegiarekin lan egiten dute.

Twitter-en @Ikasbidasoaldea bezala aurkituko dituzu.

IkaslePisuakZer

Eta zuk, ikasle bezala, zein neurri eskatzen dituzu? Zein da zure egoera? Zeintzuk dira ikasle pisuen harira arautu beharreko gaiak?

Kontaiguzu #IkaslePisuakZer traolaren bitartez edo bidali iezaguzu zure bizipena hezkuntza@egk.eus helbidera edo 688737133 (Irati) zenbakian.

Eta edozein zalantza edo kontuan izateko beste edozer okurritzen bazaizu, esaguzu ere! Denon artean lanean eginda ziur emaitza askoz hobea izango dela.

"Betaurreko Moreak" ikastaroa

Drogazaletasunaren Aurkako Laguntza Fundazioak "Betaurreko moreak" on line ikastaroa antolatu du, droga-kontsumoaren prebentzioan genero-ikuspegia lantzeko.

Helburua: prebentzio-prometan genero-ikuspegia txertatzeko hainbat prebentzio-eragilek eta bitartekarik duten behar profesionala betetzen laguntzeko.

Norentzat: Hezkuntza, esku-hartze soziala eta gazteria arloko profesionalentzako ikastaroa da.

Datak: 2020ko urriaren 16tik azaroaren 20ra.

Iraupena: 20 ordu.

Izena emateko epea: 2020ko urriaren 15era arte.

Zenbatekoa: 37 euro.

Berdindu!

Berdindu! Sexu- eta genero- aniztasunarekin zerikusia duten gaiei buruzko informazioa eta arreta ematen duen zerbitzu publikoa da.

Gipuzkoa: berdindu.gipuzkoa@gmail.com eta 943 216 551.

Arreta ordutegia: asteartetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta astelehenetik ostiralera, 16:00etatik 19:00etara.



Urriak

1

Hitzaldia

Zer: Hitz egin dezagun ... mugikor argazkilaritzaz.

Non: Online.

Ordua: 18:00etatik 18:30etara.

Prezioa: Doakoa.

Hizkuntza: Euskaraz.

Parte-hartzeko: Youtuben sartu, KZGUNEATIC bilatu, jarraitu gaitzazu eta kanpaia aktikatu abisua jasotzeko.

4

Gira Bira: Txikimusika

Zer: Gira Bira ekimenaren laugarren edizioari amaiera emango dion ekitaldia.

Non: Mendibil parkean.

Ordua: 12:00etan.

Oharra: Aurreko urteetan ez bezala, aurtengo edizioan ezingo da piknik formatuan egin, beraz, pertsonen arteko distantzia errespetatzen dituzten aulkietan eseri beharko dira familiak.

4

Kontzertua: Xoel Lopez

Zer: Iberoamerikako agertoki independenteko musikaririk fidagarri eta adierazgarrienetako baten kontzertua.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Sarrerak: Sarrera orokora 21,2 euro eta murriztua 16 euro.

Salmenta: Interneten bidez, Irungo Turismo bulegoan edo Amaia Kultur Zentroaren leihatilan ikuskizunaren egun berean.

6

Argitu tailerra

Zer: Eraginkortasun altuko birgaitzea: zure etxerako baliagarria, dirua aurrezteko eta osasuna irabazteko.

Non: Palmera Montero gunea.

Ordua: 18:30etan.

Sarrera: Doan.

Salmenta: argitu@gipuzkoa.eus emailean edo 628532303 telefono zenbakian.

9tik 12ra

Bioterra

Zer: Produktu ekologikoetan interesa duten pertsonen, erakusketarien eta bisitarien arteko lankidetza errazten duen topagunea da, energia-eraginkortasunarekin, autokontsumoarekin eta kontsumo arduratsuarekin kezkatutako horientzat pentsatuta.

Non: Ficoba.

Ordutegia: Ostegun eta igandean 10:00etatik 20:00etara. Larunbatean 10:00etatik 21:00etara. Astelehenean 10:00etatik 17:00etara.

Sarrera: Doakoa.

13ra arte

Erakusketa

Zer: 2020ko Adobur-Bidasoa XXIX. Margo Lehiaketa Erakusketa.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordutegia: Asteartetik larunbatera 18:00etatik 21:00etara eta igande eta jaiegunetan 11:30etatik 13:30etara.

Sarrera: Doakoa.

Oharra: Lehiaketara aurkeztu diren obren artean eraskusketa, aukeraketa egin eta gero.

Denbora-pasen emaitzak

5	4	9	2	6	8	3	7	1
3	1	2	7	4	5	8	6	9
6	8	7	9	3	1	5	4	2
1	5	6	8	9	2	4	3	7
7	2	8	3	1	4	6	9	5
4	9	3	5	7	6	2	1	8
2	6	4	1	5	9	7	8	3
8	7	1	4	2	3	9	5	6
9	3	5	6	8	7	1	2	4

Matrikula epea irekita!

morrisacademy.com/welcome

- Cambridge azterketen prestakuntza emaitza paregabeekin.
- Metodologia dinamikoa eta eraginkorra.
- Irakasle natiboak.
- Prezio erakargarriak.
- Teknologia berrien erabilera.
- EEBBtan eta Irlandan udako egonaldiak.

WELCOME School of English

Morris Academy

943 61 30 61

Gipuzkoa hiribidea, 2. zbk -1 eskubi. IRUN

welcome@welcomeshool.es